

## Musika eskolentzako laguntzak eskatzeko MIDILE programa informatikoaren bertsio berria

Hainbat ikastetxeren eskariari erantzunez, baliabide berri bat jarri zaio MIDILE programa informatikoari. Hona berrikuntza:

- Irakasleen (eskolakoak eta irakaskuntza arautukoak) orrialdeko botoia, aurreko ikasturteko irakasleen izenak kopiatu eta oraingo ikasturtean itsasteko bide ematen duena.
- Irakaskuntza arautuko ikasleen orrialdeko botoia, aurreko ikasturteko ikasleen izenak kopiatu eta oraingo ikasturtean itsasteko bide ematen duena.

Diru-laguntza eskatzeko, dena den, ez da bertsio berri hau ezinbestean edo nahitaez erabili behar; hau da, programa informatikoa eguneratu gabe ere, den-dena ibiliko da berdin-berdin, orain arte bezala. Izan ere, irakaskuntza arautua edota irakasle asko dituzten eskolei izango baitzaie erabilgarriago berrikuntza.

### Bertsio berria instalatzeko jarraibideak:

1. Ez dago "midile\_v11" artxiboa ezabatu beharrik, are gutxiago "midile\_dat" artxiboa (midile\_dat artxiboak aurreko urteetako datuak gordetzen ditu, eta beraz, ezinbestekoa da gordetzea)
2. "midile\_v2006.exe" artxiboa deskargatu musika-eskolen orrialdetik
  - 2.1 ordenagailuak aukera ematen badu bi hauen artean: "abrir" (ireki) edo "guardar" (gorde), "abrir" (ireki) erabili daiteke, eta horrek dakarrena da "midile\_v2006.mde" artxiboa automatikoki instalatzea "C:\midile" karpetan; beraz, programa, gaur arte, beste karpeta batean bazegoen, "C:\midile"tik kopiatu beharko da, eta dagokion karpetan pegatu edo itsatsi. Funtsezkoena, dena den, honako hau da: "midile\_v2006.mde" berria "midile\_dat.mdb" artxibo zaharra zegoen karpeta berean egotea, berdin dio karpetaren izena.
  - 2.2 "guardar" (gorde) aukera besterik ematen ez badu, "midile\_v2006.exe" artxiboa edozein karpetara deskargatu, eta gero Windowsen artxibo-arakatzaille edo esploradorea ireki, "C:\midile" karpeta bilatu eta klik bikoitza egin bertan instalatzeko; aldiz, programa, gaur arte, beste karpeta batean bazegoen, "C:\midile"tik kopiatu beharko da, eta dagokion karpetan pegatu edo itsatsi. Funtsezkoena, dena den, honako hau da: "midile\_v2006.mde" berria "midile\_dat.mdb" artxibo zaharra zegoen karpeta berean egotea, berdin dio karpetaren izena.

Behin "midile\_v2006" artxiboa deskargatu eta instalatu ondoren, ez dira 1. eta 2. puntuak errepikatu behar

3. Programa martxan jarri edo abiarazi, "midile\_v2006.mde" horretan birritan klik eginez, eta eginda dago. Programa zaharra, "midile\_v11.mde" alegia, bertan utzi edo ezabatu egin daiteke, baina, eta hau oso inportantea da, **"midile\_dat" EZABATU GABE.**
4. Programa irekitzeko mahaigain edo eskritorioko lasterbide bat erabiltzeko ohitura izanez gero, lasterbidea "midile\_v11" delakora egongo da zuzenduta, eta, ondorioz, bertsio berria ez da martxan jarriko. Hori konpontzeko, lasterbide berria sortu behar da, "midile\_v2006" delakoa abiapuntutzat hartuta

## Izenak kopiatzeko aukera erabiltzea

Lehenik eta behin, 2005/06 ikasturtea jarri behar da, eta horretarako, gogoratu, klik bikoitza egin behar da, "curso 2004/05 ikasturtea" esaldiaren gainean, hasierako pantailan, eta gero, "05" idatzi agertuko den laukian.

Irakasleen pantailan (III. eranskina) botoi bat egongo da erabilgarri, aurreko ikasturteko irakasleen izenak kopiatu eta aurtengo ikasturtean itsasteko aukera emanaz. Baliabide horrekin, dena den, irakasleen izen-abizenak eta irakasgaia baino ez dira kopiatzen, eta ez ordutegiak, ordea. Eta horrek esan nahi du honako hauek egin beharko direla :

- 1 ikastetxean ez dauden irakasleak ezabatu
- 2 irakasle berrien izenak gehitu
- 3 irakasle bakoitzaren irakasgaia berrikusi, iazko ikasturteko berbera ez ote den edo.
- 4 honako hauek osatu irakasle bakoitzari:
  - 4.1 irakasgaia zer talde edo multzokoa den
  - 4.2 "lehentasunezko interes"kotzat sailkatuta dagoen ala ez
  - 4.3 ematen dituen orduan

Irakaskuntza arautuko irakasleei dagokienez, prozedura berbera erabili behar da.

Azkenik, irakaskuntza arautuko ikasleak ere kopiatu daitezke. Izen-abizenak gehi musika-tresna kopiatuko da. Programa bera arduratzen da ikasleak kurtsoz pasatzeaz. Baina honako hauek errebisatu behar dira, dena den:

- 1.- Azken mailako (oinarrizko 4. eta erdiko 6.) ikasleak ez dira kopiatu. Horietakoren batek errepikatzen badu, eskuz idatzi beharko da
- 2.- edozein ikaslek baja hartuz gero, eskuz ezabatu beharko da
- 3.- ikasle berriak (1.koak, adibidez) eskuz idatzi beharko dira
- 4.- errepikatzen duten ikasleak errebisatu behar dira, dagokien mailan jartzeko

Azkenik, eta badaezpada ere: kopiatzeko botoia erabiltzen den bakoitzean, abizenak gehitzen zaizkio zerrendari, eta beraz, botoia birritan edo gehiagotan erabiliz gero, abizenak errepikatuta agertuko dira, hainbat alditan, eta eskuz ezabatzeko lana hartu beharko da.